



EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA


EAEko ekonomia %2,2 hazi zen 2026ko lehen hiruhilekoan

BARNE PRODUKTU GORDINA (BPG)

Urte arteko aldakuntza tasa

1. HIRUHILEKOA

%2,2



Eustaten hiruhilekoko kontu ekonomikoen aurrerapenaren arabera, euskal ekonomia %2,2 hazi zen urteko lehen hiruhilekoan aurreko urteko aldi berarekin alderatuta; Ekonomia Zuzendaritzak azken taula makroekonomikoan aurreikusitako erritmo berean. Hiruhileko arteko tasan, hazkundea %0,5ekoa izan zen, gorakada erresilientea islatuz, aurreko hiruhilekoetakoaren antzekoa.


Hazkundea, batez ere, zerbitzuen sektorearen eta, bereziki, eraikuntzaren jardueraren portara onean oinarritu da. Hauek industriaren jardura okerragoa (urteko lehen hilabeteetan uzkuritzen ari den IPlarekin), eta esportazioen beherkada konpentsatu baitute, azken hauek urtarrian eta otsailean urte arteko %4,5 eta %5,9 uzkurdura izanda, hurrenez hurren.

BARNE PRODUKTU GORDINA (BPG)

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

1. HIRUHILEKOA

%0,5




ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa

1. HIRUHILEKOA

%1,3

Lan merkatuari dagokionez, enplegua urte arteko %1,3 hazi zen lehen hiruhilekoan kontu ekonomikoen arabera, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta, Ekonomia Zuzendaritzak aurreikusitakoa zertxobait gainditzen. Hazkunde horren ondorioz, 12.000 lanpostu inguru sortu dira 2025eko lehen hiruhilekoarekin alderatuta. Horrela, euskal ekonomian milioi bat



lanpostuak aise gainditzen dira.


Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, ordea, enpleguaren hazkundeak neurrizko bilakaera izan du aurreko hiruhilekoetako erregistroekin alderatuta, %0,2ko hazkundearekin, ekonomia-aren bilakaera orokorra moteltzeko itxaropenarekin bat etorritik.

ENPLEGUA

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

1. HIRUHILEKOA

%0,2



Iturria: Eustat.